



9

Martxoak / Marzo

19:30

Astelehena / Lunes

Tolosako mendiko film laburren lehiaketako irabazleak

Harria Herria

2019ko MF-eko Sail Ofiziala
Sección Oficial MF 2019

7' V.O - eu SUBT - es



Cholitas

2019ko MF-eko Epaimahaiaren Saria
Premio del Jurado MF 2019

80' V.O - es SUBT - es / eu



10

Martxoak / Marzo

19:30

Asteartea / Martes

Nebula

2019ko MF-eko Film Labur Onena
Mejor Cortometraje MF 2019

13' V.O - en SUBT - es / eu



Manaslu

2019ko MF-eko Ikusleen Saria
Premio del Público MF 2019

100' V.O - ge SUBT - es



11

Martxoak / Marzo

19:30

Asteazkena / Miércoles

Eskalada Jasangarria Gipuzkoan

2019ko MF-eko Zabalandi Saila
Sección Zabalandi MF 2019

15' V.O - eu / es SUBT - es



Home

2019ko MF-eko Kirol eta Abentura Film Onena
Mejor Película de Deporte y Aventura MF 2019

45' V.O - en SUBT - es / eu



LEIDOR ANTZOKIA, San Frantzisko 6-8

SARRERA / ENTRADA 5€

HIRU EGUNEKO BONO / BONO DE TRES DÍAS 12€

SALMENTA LEIHATILAN / VENTA EN TAQUILLA

Antolatzailea **Organizador**

bbk
mendi film
bilbao · bizkaia

Babesleak **Patrocinadores**

TOLOSAGAJA
Tolosako Energia Zuzen
Energía de Tolosa. Tu energía

TOLOSA

Laguntzailea **Colaborador**

ZINEUSKADI

Media Partner

Gipuzkoa
Zer irakurri, hura izan

www.mendifilmfestival.com



Asociación cultural Mendi Film Festival Elkartea

Edif. Ensanche. Plaza Ensanche, 11. 48009 - Bilbao - (Bizkaia) - SPAIN

press@mendifilmfestival.com

www.mendifilmfestival.com



MENDI TOUR 2020

Mendi Tourraren 10. edizioa Tolosan

- **‘Cholitas’, ‘Treeline’, ‘Manaslu’, ‘Harria Herria’... mundu osoko pelikulekin osatuko da programazioa**

Tolosako Mendi Tourraren 10. edizioa, **BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia** zinemaldiko pelikula onenak erakusten dituen zikloa, martxoren 9-10-11ean burutuko da.

BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia abenduan egin ohi da, eta Mendi Tourrak urte osora zabaltzen du mendia, abentura, muturreko kirolak, natura eta ingurumen gaien inguruko zinemagintzaz gozatzeko aukera. Iaz, 2019an, esaterako, 50 hiri eta herritan aurkeztu ziren filmak, Euskadi eta Nafarroaz batera, Errioxa, Kantabria, Asturias, Galizia, Gaztela eta Leon, Madril, Extremadura, Andaluzia, Valentzia, Katalunia, eta Aragoi.

Iazko Mendi Film-eko pelikula sarituen maila, bikaina da, beraz 2020ko Mendi Tourrak osagarri ezin hobeak ditu ikusleak inspiratzeko.

- Bilbon **Sari Nagusia** irabazitako [Treeline](#) pelikula hunkigarria.
- **Epaimahaiaren Saria** eta jendearen maitasuna irabazi zituen [Cholitas](#) Boliviako emakume mendizaleen istorioa.
- Bilbon **Ikusleen Saria** jaso zuen [Manaslu](#), **Eskaladako Film Onena**.
- Reuben Krabbe argazkilariaren erronka itzela kontatzen duen **Film Labur Onenaren** saria irabazitako [Nebula](#).
- [Home](#), Sarah Outen britainiar gaztea munduari itzulia ematen, bizikletaz, kayakean eta arraunean, **Kirola eta Abentura Film Onena**
- Euskal kultura eta dantza bertikala uztartzen dituen [Harria Herria](#) film poetikoa.
- ... eta beste hainbat izango dira programazioak osatuko dituzten pelikulak.

Filmak jatorrizko bertsioetan eskaintzen dira, azpidatziekin lagunduta, eta saioak Mendi Filmeko ordezkariak aurkeztuko dituzte, pelikulei eta Mendi Film zinemaldiari buruzko xehetasunak emanez, eta mendi zinemarekiko pasioa elkarbanatuz bertaratzen diren ikusleekin.

Hemen, 2020ko Mendi Tour zirkuituko lehen geltokiak:

URTARRILA

24/31 Zangoza
28-29 Donostia

OTSAILA

12-13 Leioa
14/21 Igorre
16 Sondika
17-19-20-21 Gasteiz
28 Eskoriatza

MARTXOA

1 Eskoriatza
3 Oiartzun
7 Canet d'en Berenguer
5 Zumarraga
5 Agurain
9-10 Eibar
9-10-11 Tolosa
14-15 Vielha e Mijaran
23-24-25-26 Iruña
23/25 Santutxu – Bilbo
26 Zaldibar
27 Amurrio
27 Arratzu

Hemen Tolosako programazioko pelikulak:



CHOLITAS

Epaimahaiaren Saria MF 2019

Espainia 2019

Jatorrizko Bertsioa: ES | Azpidatziak: EU

Iraupena: 80'

Iruñeako Arena Comunicación ekoiztetxearen enegarren artelana da (*Pura Vida, Nomadak Tx, Muros, District Zero, Elkarrekin-Together...*). Bilbon estreinatu zen mundu mailan, Lydia, Cecilia, Liita, Elena eta Dora protagonistak bertan zirela, -zinemaldira gerturatu zen ororen gozamenerako-, eta emozio asko piztu zituen, kritika onak eta Epaimahaiaren Saria jasotzeaz batera. **Boliviako emakume indigena mendizaleen erronka** Ameriketako gailurrera, Aconcaguara, igotzea da. Euren herrialde eta bizitzetan ere gailur hori burutzea dute, aldi berean, helburu.



HARRIA HERRIA

Sail Ofiziala MF 2019

Espainia 2019

Zuz: Dimegaz Kultur Elkartea

Jatorrizko Bertsioa: EU | Azpidatziak: ES

Iraupena: 7'

Dantza bertikalaren estetika eta ikusgarritasuna, gizakiak suntsitutako espazio natural batera ekarria: Gautegiz-Arteagako Andrabide harrobiko horma lakarrak leunduz, dantzaren edertasuna. Emakumea protagonista bertan: soketatik zintzilik, eskalatzeko grina antzeztuz, dantzaren espresio librerako. Eta harria jasotzeko eginahala -**Karmele Gisasola** txapelduna-, Herria berdintzen. Emakumea, ez ausaz, hura egungo gizartean hartzen ari den espazioaren aitortzan baizik. Fusioan, txalaparta -**Oreka TX**-, eta kantura -**Miren Narbaiza**- ekarritako poesia -**Xabier Sukia**-, gehituko zaizkio.



NEBULA

Film Labor Onena MF 2019

Kanada 2019

Zuz: Jay Trusler

Jatorrizko Bertsioa: EN | Azpidatziak: ES/EU

Iraupena: 13'

Reuben Krabbe argazkilaria-artistak kanadiarrak natura-kirol argazki sinesgaitzak sortzeko ahalmena du. Argazkilaria ezaguna da gure artean, Mendi Filmen aurkeztu zen *Eclipse* film laburreko protagonista izan baitzen.



[MANASLU](#)

Ikusleen Saria MF 2019

Austria 2018

Zuz: Gerald Salmina

Jatorrizko Bertsioa: GER | Azpidatziak: ES

Iraupena: 100'

Hans Kammerlander-ek Manaslu igo zuen 2017an, Stephan Keck lagunarekin batera, eta eskietan osatu zuten jaitsiera, bide berri bat zabalduz. Horrela ito zuten, urteetan atzera eginda, mendi horretan bertan nozitu zituzten ezbehar eta galeren samina. Filmak Kammerlanderen lorpen eta galera handienak dakartza gogora, historiako alpinista puntakoenetako bat dela aintzat hartuta. Bere buruari galdetzen dio ea nolatan dagoen bizirik, bere lagunik onenak mendian hil diren bitartean.



[ESKALADA JASANGARRIA GIPUZKOAN](#)

Zabalandi (lehiaketaz kanpo) MF 2019

Espainia 2019

Jatorrizko Bertsioa: EU/ES

Iraupena: 15'

Gipuzkoako hainbat eskalada gunetan berrekipatze eta mantentze-lanak arrakastaz burutu dira alde guztietako eragileen elkarlanari esker. Ingurumena zaintzea, kirol jarduera, tokian tokiko sustapen ekonomiko-turistikoko jasangarria... uztartzen dituen proiektu eredugarria.

OHARRA:

FEDME, Espainiako mendi federazioak, proiektuari 2019ko Ingurumen Saria eman dio.





TREELINE

Sari Nagusia MF 2019

USA 2019

Zuz: Jordan Manley

Jatorrizko Bertsioa: EN/JAP | Azpidatziak: ES

Iraupena: 40'

Ekoizpen estatubatuarra, **Jordan Manley** zuzendari kanadarrak ekarria. Egile honek aurretiaz erakutsiak zituen Mendi Filmen zinemagintzarako dohainak, *A Skier's Journey* deitutako seriearekin. **Mendi Filmeko Sari Nagusia** hala argudiatu zuten Epaimahaikideek: "Irudi bikainekin, pertsonaia sotilekin, soinu-banda misterioitsuarekin, argumentu sinesgarriarekin eta zientzia protagonistatzat duelarik, filmak entzun behar dugun mezua transmititzen du, geure burua eta inguruan duguna babestu ahal izateko: **zuhaitzak, Natura**". Nevada, Columbia Britainiarra eta Japoniako basoetan barrena eginiko hausnarketa bidaia.



HOME

Kirola eta Abentura Film Onena MF 2019

Kanada 2018

Zuz: Jen Randall

Jatorrizko Bertsioa: EN | Azpidatziak: EU/ES

Iraupena: 45'

Londres jaioterritik abiatuta, **Sarah Outen** gazte britainiarrak munduari bira eman nahi zion kayakez, bizikletaz eta itsas txalupaz, haren indarraz soilik baliatuta; hau da, motordun gailurik erabili gabe. 32.000 kilometrotik gora luzatu zen abentura itzela. Bizi-grina, umore zentzu itsaskorra, hausnarketa zintzo eta sakonak, une goxoak, eta borroka, zorion eta sufrimendu tarreak nahastuko dira ehunka grabazio orduko materialak dakarren bidaia kontaketa honetan.

GEHIGARRIAK

FILM LABURREN LEHIAKETA

Otsailak 14an amaituko da epea

ERAKUSKETA

Christian Pondellaren [BENEATH THE ICE](#) argazki erakusketa
2'5m x 1'5m inguruko panelak Leidorko sarrerako pasiloetan

*Soporteak, udal kultur ekipamentuko sare-hesiak

TOLOSAKO AZOKA

Promozioa eta produktu sorten zozketa